

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 19a

104. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, bidezain, suhiltzaile eta Nafarroako beste funtzionario talde batzuentzako etxebizitzetarako buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Nafarroako Kutxarekin zerikusia duen zenbait informaziori buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, 2011ko azaroaren lehen asteko euriteek kaltetutako toki entitateen eskaeren aurrean Landa Gara-peneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak erabilitako irizpideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Ikerketa Institutuaren egoerari eta Nafarroako Ikerketa Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, jakitekoa bete ote den Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren ekainaren 5eko 226/2008 Foru Agindua, Lekunberriko gazteentzako instalazioetan eginiko obrei eta horietarako emandako diru-laguntzei dagokienez. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, enpresa publikoek beren langileria gastua % 5 murrizteko betebeharrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroan 39 enpresa publiko ote zeuden eta gaur egun horietatik 13 bakarrik gertatzen diren, eta zeintzuk ziren enpresa horien 39 kudeatzaileen eginkizunak. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, “CEIN-Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra”ko kudeatzailetzari enplegu-erregulazioko espedientearen ondotik dagokion lansari-murrizketa proportzionalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, enpresa publikoek Nafarroan duten etorkizunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, euskaltegi publikoei eta herri ekimenekoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, jakitekoa babes ofizialeko zenbat etxebizitzatan izan diren kaleratzeak. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Tafalla eskualdeko buru gisa aitortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Lizarra eskualdeko buru gisa aitortzeari buruz buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

- Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean osasun laguntza etengabea eta larrialdikoa emateko beharrezkoak diren osasun arloko langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Noingo Aena-Nafarroako Aireportuari eta Renfek eta Adifek Irun-Altsasu eta Armiñon-Gasteiz-Ribaforada lineetan kudeatzen duten trenbide sareari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin urte honetarako berezko defizit-mugei buruz negoziatzearen gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Tafallako Kirol Hiriko kanpoko igerilekuen finantzaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, jakitekoa zer berri duen Nafarroako Gobernuak Europar Batasuneko aurrekontuan gazteen enplegua sustatzeko sorturiko diru-horniduraren kudeaketari buruz, zeinetik Espainiak zati handi bat jasoko baitu. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

## **Galdera, bidezain, suhiltzaile eta Nafarroako beste funtzionario talde batzuentzako etxebizitzari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, bidezain, suhiltzaile eta Nafarroako beste funtzionario talde batzuentzako etxebizitzari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Iruztun	11
Los Arcos	5
Nabaskoze	12
Ornoz-Mugairi	8
Iruña	14
Erronkari	3
Zangoza	9
Tafalla	2
Tutera	34
Zubiri	5

---

### **ERANTZUNA**

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du bidezain, suhiltzaile eta beste funtzionario talde batzuentzako etxebizitzari buruz (PES-44). Hauxe erantzun du Nafarroako Gobernuak: Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

1.- Bidezain, suhiltzaile eta beste funtzionario talde batzuentzako zenbat etxebizitza dago Nafarroan? Non daude?

Nafarroan, 322 etxebizitza daude bidezainen parkeetan, honako tokietan hain zuzen: Allo, Altsasu, Agoitz, Lizarra, Iruztun, Los Arcos, Nabaskoze, Ornoz-Mugairi, Iruña, Erronkari, Zangoza, Tafalla, Tutera eta Zubiri.

2.- Horietako zenbat daude hutsik?

Une hautan, 150 etxebizitza daude hutsik. Hauxe da haien kokapena:

Parkea	Etxebizitza kop.
Allo	1
Altsasu	10
Agoitz	2
Lizarra	34

3.- Zer neurri hartu ditu Nafarroako Gobernuak etxebizitza horiei erabilera bat emateko?

Bidezainen parkeak izenez ezagutzen ditugunak 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera eta 70eko hamarkadaren hasieran eraiki ziren –Allokoa izan ezik, 80ko hamarkadako baita– Nafarroako zenbait herritan, Nafarroako Foru Diputazioko Bide Zuzendaritzako eta Suhiltzaileen Zerbitzuko langileei ostatu emateko. Parke horiek guztiek orubea, urbanizazioa eta hainbat erabilera dituzten eraikin batzuk badauzkate: etxebizitza, biltegia, oilategia, bulegoa, garajea eta abar. Hasiera batean horiek guztiak beren berariazko erabilerarako baliatu baziren ere, husten joan ziren neurrian horietako batzuk beste departamentu eta erakunde autonomo batzuei atxiki zitzaizkien, beren zerbitzuak eman zitzaizkien, edo, bestela, beste entitate batzuei laga zitzaizkien, halako moduz non parke bakoitzean, gaur egun, batera aurkitzen ditugun funtzionarioak bizi diren etxeak eta erabiltzen dituzten lokalak –batzuetan jada erretiroa hartuta daude, edo haiek ez haien senideak bizi dira–, etxebizitza hutsak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beste erabilera batzuk dituztenak, udalek erabiltzen dituztenak edo irabazi asmorik gabeko entitateek erabiltzen dituztenak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen higieizinei eta

administrazio-bulegoei buruzko 2009-2011 aldirako Planak bere helburu nagusien artean aipatzen du higiezin erabilera arrazionalizatzea eta optimizatzea. Helburu horiek lortzeko, besteak beste, baliabide berekiak aprobetxatzeko eta balioan jartzeko irizpideak eta beharrezkoak ez diren higiezin desinbertsioaren irizpidea jarraitu behar dira.

Ikusita bidezainen parkeak zein egoeratan zeuden eta kontuan izanda Higiezin Planean adierazitako printzipioak, Ondare Zerbitzuak ekimena hartu zuen bidezainen parkeetan lokalak edo etxebizitzak atxikita dauzkaten departamentu eta erakundeekin batera lan eginez parke bakoitzaren egiazko egoerari buruzko informazioa gaurkotzeko eta sistematizatzeko. Hartara, departamentu eta erakunde horiekiko –Sustapen Departamentua; Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua; Nafarroako Larrialdietarako Agentzia, eta Nafarroako Pertsonen Autonomiarako Agentzia– lankidetzak egokiari esker, 2012ko apirilean datu base gaurkotu bat egin ahal izan zuen, non parke bakoitzeko etxebizitza eta lokalaren egiazko erabilera jasotzen baita.

Behin informazio hori bilduta, ikusi dugu aipatutako etxebizitzetatik askotan haien onuradunak izateko baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak bizi direla, eta, horrenbestez, 2012ko maiatzean, txosten juridiko bat egin zen etxebizitza horiek berreskuratzeko hartu beharreko neurriei buruz.

Ukitutako departamentuekin eta erakundeekin ados jarrita, erabaki zen, lehenengo eta behin berreskuratzea ohiko etxebizitza izan ez eta haiek erabiltzeko eskubidea zuten funtzionarioek Gobernuari itzuli ez dizkietenak. Hartara, lortu dugu 25 etxebizitza itzultzea. Etxebizitza horiek hutsik geratu dira, beste xede batzuetarako erabiltzeko moduan.

Ohiko etxebizitza izan ez eta boluntarioki itzuli ez diren kasuan, etxegabetze prozedurak abiatu dira.

Jada etxebizitzak erabiltzeko eskubidea izan ez eta bere garaian esleituta zituztenak ohiko etxebizitza gisa erabiltzen jarraitzen duten pertsonen kasuan, erabaki da etxegabetze prozedurarik ez abiatzea, zein irtenbide hartu erabakitzen ez zen bitartean.

Aldi berean, herri batean (Zubirin) planeamendua aldatzeko espediente bat hasi da, hirigintza sailkapena parkeen errealitateari egokitzeko, eta aztertzen ari gara beste bi herritan (Zangozan eta Altsasun) horrelako espedienteak hastea.

Halaber, azterlan batzuk egin dira parkeen kontserbazio egoera ezagutze aldera, bai eta haiek egoki mantentzeko edo, kasua bada, zaharbertzeko, egin beharreko obren kostua ezagutze aldera ere.

Bestalde, bere garaian entitate batzuei eginiko lagapenak erregularizatzeko prozesua abiatu da, parke bakoitzeko erabilerak berrantolatze aldera, arrazionaltasuneko eta efizientziako irizpideen arabera.

Etxebizitza hutsei dagokienez, aurreikusi da haiek erabiltzeko aukera legokeela etxegabetze prozesuan dauden pertsonen ostatu emateko, Etxegabetzeen Batzordeak eginiko proposamenaren arabera; bestela, interesekoak ez diren kasuetan edo bizigarri bihurtzeko ordaindu beharreko kostua onargarria ez den kasuetan, haiek besterentzeari ekinen zaio.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Nafarroako Kutxarekin zerikusia duen zenbait informaziori buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Kutxarekin zerikusia duen zenbait informaziori buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 2an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko egindako gal-

dera egin du Nafarroako Kutxaren kudeaketarekin lotutako zenbait alderdiri buruz (PES-47). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguakontseilariak:

Tamalez jakinarazi behar dizut departamentu honek ez daukala eskatutako informazioa, zeren eta Nafarroako Kutxa nortasun juridiko independentea eta izaera pribatua dituen entitatea baita.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguakontseilaria, Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, 2011ko azaroaren lehen asteko euriteek kaltetutako toki entitateen eskaeren aurrean Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak erabilitako irizpideei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, 2011ko azaroaren lehen asteko euriteek kaltetutako toki entitateen eskaeren aurrean Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako Departamentuak erabilitako irizpideei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du 2011ko azaroaren lehenengo astean Nafarroako mendialdean izandako euri jasei buruz. Horri erantzuteko honako informazioa eman dio Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariak:

2011ko azaroaren 24an, Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiak eta Baztan, Areso, Goizueta, Lesaka, Leitza eta Zugarramurdiko udal ordezkariak bilera bat egin zuten.

Bilera hartan, jakinarazi zitzairen 2011ko azaroaren 5ean eta 6an izandako uholdeek eragindako kalteen esparrua eta magnitudea ez zirela nahikotzat jotzen haiei konponbidea emateko kontusail bat gaitzeko, ikusita uholdeek eragindako kalte zehatzak eta haiei erantzuteko aurrekontuan zegoen dirua.

Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak larrialdi izaeraz sartu zituen Toki Azpiegituren Planean erantsitako dokumentuan aipatzen diren

obrak. Obra horiek direla-eta laguntza gisa emateko 125.157,95 euroko kopurua kalkulatu zen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Espedientea	ToK-entitatea	Obra	Inbertsioa	TEK	Sartzeko dokumentazioa	Zenbateko teknikoa	Lagundu daitekeen zenbatekoa	Behin-behineko ekarpena	Sartzeko ofizioaren data	Erregularizatzeko ekarpena	Eg.	2012an ordaindutakoa
52162G-0-12	Areso	Kaleak garbitzea. 2011ko azaroko uholdeen kalteak	1.457,47	CO	12-04-12	1.457,47	1.457,47	1.020,23	11-06-12	1.020,23	F	1.020,23
07098G-0-12	Leiza	Olaberrirako zubia zaharberitzea 2011ko azaroko euri jasan kalteak	19.157,55	NB	12-04-12	19.157,55	19.157,55	13.410,29	30-05-12	12.162,56	F	12.162,56
07099G-0-12	Baztan	2011ko azaroko euri jasan kalteak konpontzea	53.534,72	JJ	12-04-12	53.534,72	53.534,72	37.474,30	18-05-12	37.474,30	F	37.474,30
07100G-0-12	Lesaka	Baztenekobordako bidea. 2011ko azaroko uholdeen kalteak	1.493,41	CO	12-04-12	1.493,41	1.493,41	1.045,39	11-06-12	1.045,39	F	1.045,39
07101G-0-12	Goizueta	Olatokotako zubia. 2011ko azaroko uholdeen kalteak	2.950,00	CO	12-04-12	2.950,00	2.950,00	2.065,00	11-06-12	2.065,00	F	2.065,00
07102G-0-12	Leiza	Aierako bidea eta kalea. 2011ko azaroko uholdeen kalteak	18.977,94	CO	12-04-12	18.977,94	18.977,94	13.284,56	11-06-12	13.284,56	F	13.284,56
07103G-0-12	Gainza	Camino Martikoneko bidea. 2011ko azaroko uholdeen kalteak	3.508,97	CO	12-04-12	3.508,97	3.508,97	2.456,28	11-06-12	2.456,28	F	2.456,28
07104G-0-12	Etxalar	Murrinzenbordako bidea. 2011ko azaroko uholdeen kalteak	768,18	CO	12-04-12	768,18	768,18	537,73	19-06-12	537,73	F	537,73
07105G-0-12	Arribe-Atellu	Uhako bidea. 2011ko azaroko uholdeen kalteak	23.622,70	CO	16-05-12	23.309,71	23.309,71	16.316,80	13-08-12	16.316,80	F	16.316,80

<b>GUZTIRA</b>		<b>125.470,94</b>	<b>125.157,95</b>	<b>125.157,95</b>	<b>87.610,58</b>	<b>86.362,85</b>
----------------	--	-------------------	-------------------	-------------------	------------------	------------------

## **Galdera, Ikerketa Institutuaren egoerari eta Nafarroako Ikerketa Planari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ikerketa Institutuaren egoerari eta Nafarroako Ikerketa Planari egindako galderaren erantzuna, Ikerketa Institutuaren egoerari eta Nafarroako Ikerketa Planari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 15eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Aralar-Nafarroa bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Asun Fernández de Garaialde y Lazkano andreak idatziz erantzuteko galdera egin du honakoak jakin nahi baititu: “Zein da Ikerkuntza Institutuaren egungo egoera? Zer gertatu da akreditazioarekin? Zein da ikerkuntzaren egitura Nafarroan? (Organigrama eta organigramaren parte diren pertsonen eta erakundeen edo entitateen eginkizunak). Zein da ikerkuntza plana Nafarroan?” (PES-00049). Hauxe da Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

#### **1.- OSASUN IKERKUNTZAREN INSTITUTUA**

2012ko udaberritik, Osasun Departamentua lanean ari da Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin, Nafarroako Unibertsitatearekin, Nafarroako Ospitalegunearekin eta Nafarroako Unibertsitateko Klinikarekin oinarri-akordio batera iristeko, haren bidez fundazio bat eratu eta gero Nafarroako Osasun Ikerkuntzaren Institutuaren akreditazioa lortze aldera. Entitate guztiek egiten duten ikerkuntzalana aztertu dugu, eta lanean ari gara ukitutako alde guztien artean akordio bat lortzeko.

#### **2. IKERKUNTZAREN EGITURA**

Nafarroako ikerkuntzaren egiturak bi funtsezko zutabe dauzka: Osasun arloko Ikerketa, Berrikuntza eta Osasun Prestakuntzarako Zerbitzua eta Miguel Servet Fundazioa. Bi egitura horiek Osasun Zuzendaritza Nagusiaren menpekoak dira.

Osasun arloko Ikerketa, Berrikuntza eta Prestakuntzarako Zerbitzuaren egitura aldatu zen Osasun Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen abuztuaren 24ko 132/2011 Foru Dekretua aldatzen duen uztailaren 18ko 61/2012 Foru Dekretuaren bitartez.

Osasun arloko Ikerketa, Berrikuntza eta Prestakuntzarako Zerbitzuak hiru atal dauzka bere egiturari: Prestakuntza eta Lanbide Garapenerako Atala, Ikerketarako eta Ezagutza Kudeatzeko Atala eta Berrikuntza eta Ebaluazio Atala. Aipatutako foru dekretuak honako eginkizunak esleitzen dizkio Ikerketarako eta Ezagutza Kudeatzeko Atalari:

– Miguel Servet fundazioarekin elkarlanean, osasun zientzietarako helburuak eta ikerketa-ildok ezartzea, eta ikerketarako ekipo eta ildo egonkorak sortu eta mantentzearen sustapena.

– Miguel Servet fundaziorako eginkizunen esleipena proposatzea eta horiek nola gauzatzen diren gainbegiratzea,

– Nafarroako Foru Komunitateak ikerketaren alderdi etikoak egiaztatu eta baimentzeko dituen eskumenak garatzea, Ikerketarako Etikako Batzordeei babesa eta laguntza emanez.

– Proiektuak, ikertzaileak eta zentroak koordinatzea eta euren arteko sinergiak sortzea, Nafarroako Osasun Sistemako ikerketa-baliabideak modu eraginkorrean erabiltzeko, Miguel Servet fundazioaren laguntzarekin.

– Ikerketa biomedikorako laguntzak kudeatzea eta Osasun Departamentuaren baimen espresa behar duten proiektuak ebaluatzea.

– Kalitate zientifiko-teknikoa eta bikaintasun klinikoa sustatzea, ebidentzia zientifikoa osasun laguntzako praktikan erabil dadila sustatuz, lanbide erakundeekin eta zientzia elkarteekin elkarlanean.

– Osasun sistema publikoko Osasun Zientzien Liburutegia kudeatzea, baita argitalpenak eskuratzeko ere, zientziari buruzko informazio-iturriak batuz ezagutzaren hedapena laguntzeko.

– Osasun Departamentuak sustatutako argitalpen zientifikoaren edizioa kudeatzea.

Ikerkuntzarako egituraren beste zutabea Miguel Servet Fundazioa da. Miguel Servet Fundazioaren estatutuak Nafarroako Gobernuaren 2012ko uztailaren 18ko Erabakiaren bidez aldatu ziren. Hauexek dira Fundazioaren helburuak:

a) Nafarroako Foru Komunitatean ikerketa sustatzen laguntzea, garapenerako indar-emalea



baita eta herritarren osasunaren babesa etengabe hobetzea ekartzen baitu.

b) Osasun Departamentuari osasun arloko ikerketako gaietan aholku ematea, hala eskatzen zaionean, eta ikerketa-tratamendua behar duten osasun-arazoak detektatzeko prozesuan parte hartzea, lehenetsitako garapen-ildoak proposatuz.

c) Nafarroako osasun sistema publikoko ikerketa ildoak zehazteko prozesuan laguntzea eta ildo horiek garatzea, Osasun Departamentuak ezarri dituen eta bere Ikerketa Planean bildu diren osasun arloko lehenetasunen arabera.

d) Ikerketa zientifikoko programak prestatu eta garatzeko lana koordinatzea, biomedikuntzaren eta osasun zientzien arloan, ikerketarako ekipo eta ildo egonkorak sortzea eta mantentzea ahalbidetuz, baita ikertzaile berriak sartzera ere.

e) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langileek egiten duten ikerketa laguntzea, proiektuen kudeaketa, metodologia eta informazio zientifikoaren bilaketa eta azterketa arloetan aholkua ematea, baliabide propioak edo kanpokoak erabiliz, eta ikerketarako etengabeko prestakuntza ahalbidetzea.

f) Ikerketa taldeen eta beste erakunde publiko zein pribatu batzuen arteko lankidetzak, komunikazioa eta kooperazioa bultzatzea, osasun zientzien eremuan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko ikertzaileek parte hartzen duten proiektu, ikerketa-talde, sare edo antzekoen finantzazioa, garapena eta kudeaketa integrala erraztuz.

g) Baliabideak, hornidura kliniko-esperimentalak, plataforma teknologikoak, Ikerketarako Biobankoa eta Osasun Departamentuak osasun sistema publikotik esleitzen ahal dien beste edozein jardura edo ikerketa-azpiegitura sustatu, gidatu eta kudeatzea, modu hobereanean eta eraginkorrean.

h) Beste erakunde batzuekin elkarlanean aritzea, osasun arloko ikerketarekin lotura duten prestakuntza programetan.

i) Nafarroan osasun arloan ikertzen duten instituzioetako gobernu eta kudeaketa organoetan parte hartzea, zehazki balizko Nafarroako Osasun Ikerketarako Institutuan.


j) Ikerketak sortutako jakintza gizarteari eta osasun inguruneari helaraztea.

k) Bere eskumenen esparruan Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak agintzen dion beste edozein jarduketa garatzea.

2012ko uztailaren 18ko Foru Dekretuaren bitartez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua-ren Estatutuak onetsi ziren. Berritasunetako bat da Ikerketa Biomedikoaren Zentroari zegokion unitate organikoa desagertzen dela eta Navarrabiomeden sartzera dela, Miguel Servet Fundazioaren barruan.

Honako hau da Miguel Servet Fundazioaren organigrama:

## Organigrama



### 3- NAFARROAKO IKERKUNTZA PLANA

2007an, Osasun Departamentuak Nafarroako Osasun Ikerketaren Plan Estrategikoa onetsi zuen. Honakoak izan ziren lehentasunezko ildoak:

1. Ikerkuntzaren arloko masa kritikoa aregotzea.
2. Nafarroarentzako funtsak hartzeko maila areagotzea.
3. Ikerketaren kudeaketa eta zuzendaritza estrategikoa hobetzea.
4. Gaur egungo ikerketa-ildoak handitzea eta egokitzea.
5. Plataforma teknologikoen sustapena.
6. Ingurunean aliantzak sortzea, ikerketaren arloko kalitatea hobetzerantz bideratuak.
7. Ezagutzaren hedapena hobetzea.

Plan honen arabera orientatzen eta garatzen ari dira bai Miguel Servet Fundazioa, bai Ikerketa Biomedikoaren Zentroa, egun NAVARRABIOMED izena duena.

Bestalde, Nafarroako Osasun Arretaren Eredua garatzeko Estrategiaren barruan, hiru proiektu estrategiko daude ikerketarekin zerikusi zuzena dutenak: 11.1 proiektua, "Ikerketa Biomedikoaren Zentro berria abian jartzea"; 11.2 proiektua, "O-NOZen Ikerketa Bultzatzeko Programa"; eta 11.4 proiektua, "Osasun Ikerketaren Institutua".

O-NOZen ikerketa sustatzearekin lotutako proiektua bultzatze aldera, Osasun zuzendari nagusiak lantalde tekniko bat sortu zuen, otsailaren 10eko 243/2012 Ebazpenaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barruan ikerketa sustatzeko programa bat egiteko. Aipatutako programarekin, honako helburuak lortu nahi ziren:

- Osasun ikerketa bultzatzea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barruan.

- Lehentasunezko ildoak zehaztea eta osasun sistemaren efizientzia eta osasun-eraketak hobetzeko gakoak diren arloetan ikerketa-erronkak formulatzea.

- Ikerketarako lantalde egonkorak biltzea lehenetsitako ildoetan.

– Ikerketarako lantalde eta ildo egonkorrek finkatzeko propio egindako laguntza-tresna berriak garatzea.

– Oinarrizko osasun laguntzaren arloko ikerketa berariaz sustatzea.

– Ikerketa-helburuak txertatzea osasun-zentrokiko eta -zerbitzuekiko itunetan.

Lantaldearen lana oinarri gisa balio izan du egun Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barruan ikerketa sustatze aldera Osasun arloko Ikerketa, Berrikuntza eta Prestakuntzarako Zerbitzua egiten ari den programarako. Programa hori bi hilabeteko epean amaituko dela jotzen dugu.

Honako helburu orokorrak ezarri ziren:

- Aitortzea ikerketa funtsezko elementu bat dela Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren helburuan, horren bidez laguntzen baita Nafarroako herritarrei osasun laguntza hobea ematen eta osasun maila jotzen.

- O-NOZeko profesionalak garatzen duten ikerketa-jardueraren bolumena eta kalitatea nabarmen handitzea.

- O-NOZen barruan nabarmentzeko moduko ikerkuntza-jarduera bat egiten diharduten profesionalen eta taldeen kopurua areagotzea eta bultzatzea.

- Unibertsitateekiko lankidetzak indartzea, haien eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren arteko aliantza estrategikoak ezartzeko ikerketaren arloan.

- Kalitate handikoak diren eta O-NOZentzat interes estrategikoa duten ikerketa-proiektuen bideragarritasuna bermatzea, helburu bereki gisa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, jakitekoa bete ote den Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren ekainaren 5eko 226/2008 Foru Agindua, Lekunberriko gazteentzako instalazioetan eginiko obrei eta horietarako emandako diru-laguntzei dagokienez.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa bete ote den Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren ekainaren 5eko 226/2008 Foru Agindua, Lekunberriko gazteentzako instalazioetan eginiko obrei eta horietarako emandako diru-laguntzei dagokienez, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 15eko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 7an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Lekunberriko Gazteriaren Etxeko instalazioetan egindako obrei eta haietarako emandako diru-laguntza publikoei buruz

(8-13/PES-00048). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariaren ekainaren 5eko 226/2008 Foru Aginduaren bidez, Nafarroako toki entitateei diru-laguntzak emateko deialdiaren oinarriak onetsi ziren, 2008an eta 2009an gazteentzako instalazioetan inbertsioak eta hornidura egiteko. Bada, gazteentzako instalazioetan inbertsioak eta hornidura egiteko Nafarroako toki entitateentzako diru-laguntzen deialdi horren babesean, Lekunberriko Udalarari 373.475,37 euroko diru-laguntza bat eman zitzaion Lekunberriko Gazteen Etxeko obrerarako.

Lekunberriko Gazteriaren Etxeko obrari buruz, esan beharra dago munta handiko obra bat denez, 1.604.434,84 euroko aurrekontua baitu, Udalak aurkeztutako obraren amaierako exekuzio-epea onartu zela. Izan ere, haren arabera, obrak 2010eko lehenengo hiruhilekoan amaituko ziren.

Ikusita lanak ez zirela 2010. urtean zehar amaitu, irailean, Nafarroako Gazteriaren Institutuak ida-

tziz eskatu zion Udalari obraren egoeraren berri emateko. Urriaren 4an, herriko alkateak erantzun-idazki bat izenpetu zuen, non deskribatzen baitzuen obraren egoera. Idazkian esaten zuen Udalak hurrengo urtearen hasieran ekin nahi ziela berriz ere obrei, haiei amaiera emateko asmoz. 2011ko otsailaren 10ean, bisita bat egin zen Lekunberriko Udaleko egoitzetara, bertako alkatearekin, eta bisita hartan berriz adierazi zen Udalak obrak amaitu nahi zituela entitate horrek une horretan zeukan egoera ekonomikoa –krisi ekonomiko orokorraren ondorioz udaletxean izandako diru-sarreraren jaitsierak eragindakoa– gairatu bezain pronto.

Uneoro, Nafarroako Gazteriaren Institutuak, orain Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutua denak, udal horretan dagoen krisi ekonomikoko egoeraren aurrean, lehenetsuna eman dio udal

horrek obrak amaitzeko daukan interesari, instalazio horrek herriko gazteen ongizaterako, sozializazioarako eta prestakuntzarako daukan garrantzia dela eta. Hori dela eta, gaur arte ez da diru-laguntza itzultzeko eskubideaz baliatu –deialdiko 10. oinarria–, obrei berriz ere ekinen zaielakoan. Hala eta guztiz ere, egoeraren jarraipena egiten ari gara, Nafarroako Foru Administrazioak diru-laguntza berreskuratzeke daukan eskubidea preskriba ez dadin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 6an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

## **Galdera, enpresa publikoek beren langileria gastua % 5 murrizteko betebeharrari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, enpresa publikoek beren langileria gastua % 5 murrizteko betebeharrari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 14an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresa publikoekin lotutako gai batzuei buruz (PES-0050). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

#### **NAFARROAKO ENPRESA KORPORAZIO PUBLIKOA SORTU ZENETIK,**

1.- Egia al da betebeharrari gisa ezarri zela enpresa publikoek % 5 murriztea beren langile-gastuak?

Bai, 12/2010 Foru Legean adierazitakoari jarraituz.

2. Baiezkoan, nola aplikatu da irizpide hori enpresa publiko bakoitzean?

Enpresa publikoek zenbait neurri aplikatu zituzten lansarien masa gutxitzeko; besteak beste, honakoak:

- kudeatzaileen lansariak gutxitzea,
- plantillako beste kide batzuen lansariak gutxitzea,
- behin-behineko kontratuak ez berritzea,
- eszedentziak bultzatzea,
- lanaldiak luzatzea/laburtzea,
- borondatezko bajak / aurre-erretiroak bultzatzea.

Enpresek ez zituzten neurri horiek modu uniformearekin aplikatu. Gehitu dugun eranskinean agertzen da, modu eskematikoan, zein diren enpresa publiko bakoitzak hartutako neurri nagusiak.

3.- Zer enpresatan jaitsi zaie soldata langile guztiei?

Hamabi enpresatan. Eranskina gehitu dugu.

4.- Zer enpresatan ez zaio jaitsi soldata inori?

Circuito de los Arcos, SLn (2010eko ekainean hasi zen lanean) eta Territorio Roncalia, SLn. Hala eta guztiz ere, bi enpresa horietan lanaldia luzatzeko neurrien bitartez lortu zen soldaten masan eskatzen zen aurrezkia.

5.- Demandarik eta epairik egon al da?

Bai. Eranskina gehitu dugu.

6.- Zer enpresatan jaitsi zaio soldata pertsonaren bati baina ez denei?

20 enpresatan. Eranskina gehitu dugu.

7.- Demandarik eta epairik egon al da?

Bai. Eranskina gehitu dugu.

8.- Enpresaren batean igo al zaio soldata inori aldi horretan?

12/2010 Foru Legearen aplikazioaren berariazko testuinguruan, ez zen soldata-igoerarik aplikatu. Bestalde, Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, SArek kasuan, plantilla osolari KPlaren araberrako gaurkotzea egin zitzaion 2011ko ekitaldian.

9.- Denetan bete al da langile-gastuak % 5 murrizteko helburua?

Enpresa guztietan, eskatutako % 5eko murrizketa lortu da, demandek eta epaiek zer dioten oraindik ere ez dakigula, betiere. Hiru salbuespen daude:

§ Instituto Técnico y de Gestión Ganadero, SA, zeina % 1,78ra iritsi zen.

§ Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, S.A., non % 3,86ra iritsi zen.,

§ Navarra de Servicios, S.A., non % 4,97ra iritsi zen (azken hori helburutik oso hurbil dago).

10.- Iraizpenen bat egin al da helburua lortzeko?

Ez.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 13an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

ERANSKINA

## EKAINAREN 11KO 12/2010 FORU LEGEA BETETZEKO HARTUTAKO NEURRIEN LABURPENA

	Beste iruzkin batzuk	Kudeatzaileen lantokiaren gaitasuna	Planilla osoaren lantokiaren gaitasuna	Zuzendaritza edo/eta plantillaren zati baten (ez guztien) lantokiaren gaitasuna	Beste neurri batzuk (kontratuak ez berritzea, eszedentziak, lanaldiak luzeak/laburak, aurre-erretiroak, borondatezko bajak eta beste)	Lortutako aurrezkia > % 5 (demandek eta epaiek zer dioten jakin gabe)	Demandarik edo epairik baden (baiezkoan alpatzen da bakarrik)
Sozietatea	Beste iruzkin batzuk	Kudeatzaileen lantokiaren gaitasuna	Planilla osoaren lantokiaren gaitasuna	Zuzendaritza edo/eta plantillaren zati baten (ez guztien) lantokiaren gaitasuna	Beste neurri batzuk (kontratuak ez berritzea, eszedentziak, lanaldiak luzeak/laburak, aurre-erretiroak, borondatezko bajak eta beste)	Lortutako aurrezkia > % 5 (demandek eta epaiek zer dioten jakin gabe)	Demandarik edo epairik baden (baiezkoan alpatzen da bakarrik)
Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SL (NEKP)	Aurrerago, Navarra de Suelo y Vivienda, SA (NASUVINSA) izena hartu zuena	X	X			BAI	
Viviendas de Navarra, SA	NAVINSUVINSAK xurgatua	X	X	X	X	BAI	BAI
Navarra de Suelo Industrial, SA	NASUVINSAK xurgatua	X	X		X	BAI	
Navarra de Suelo Residencial, SA	Aurrerago Agencia Navarra del Transporte y la Logística, SA (ANL) izena hartu duena	X				BAI	
Ciudad del Transporte de Pamplona SA	ANLk xurgatua	X	X			BAI	
Agencia Navarra del Transporte y la Logística, SA	INTIAK xurgatua	X	X			BAI	
Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL (CAT)	INTIAK xurgatua	X	X	X	X	BAI	
Riegos de Navarra, SA	INTIAK xurgatua	X	X		X	BAI	
Instituto Técnico y de Gestión Agrícola, SA	INTIAK xurgatua	X	X		X	BAI	BAI
Instituto Técnico y de Gestión Ganadero, SA	INTIAK xurgatua	X	X		X	EZ, % 1,78ra iritsi zen	
Instituto de Calidad Agroalimentaria de Navarra, S.A.	INTIAK xurgatua	X			X	BAI	
Gestión Ambiental Viveros y Repoblaciones de Navarra, SA	Aurrerago Gestión Ambiental de Navarra, SA (GAN) izena hartu duena	X	X	X	X	BAI	
Navarra de Medioambiente Industrial, SA	GANek xurgatua	X	X		X	BAI	
Navarra de Infraestructuras Locales, SA (NILSA)		X	X		X	BAI	BAI
Baluarteko Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, SA	Aurrerago, Empresa Navarra de Espacios Culturales, SA (ENEC) izena hartu duena	X	X		X	BAI, baina 2011n KPIaren arabera gaurkotzea aplikatu zen, kudeatzaileen kasuan izan ezik	
Planetario de Pamplona, SA	ENECSAk xurgatua	X	X		X	BAI	BAI
Circuito de Los Arcos, SL	Aurrerago, Navarra de Deporte y Ocio, SL (NDO) izena hartu duena. Zirkuitua 2010eko ekainean hasi zen lanean.				X	BAI	
Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, SA	NDOk xurgatua	X	X		X	EZ, % 3,86ra iritsi zen	
Territorio Roncalia, SL	NDOk xurgatua				X	BAI	
Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, SAU (CNAI)		X	X		X	BAI	
Navarra de Servicios, S.A.	Aurrerago, Navarra de Servicios y Tecnologías, SA (NASERTIC) izena hartu du	X	X	X	X	EZ, gutxiagatik, % 4,97ra iritsi zen	BAI

Sozietatea	Beste iruzkin batzuk	Kudeatzaileen lantzeren gaitzitatea	Plantilla osoaren lantzeren gaitzitatea	Zuzendarien edo/eta plantillaren zati baten (ez guztien) lantzeren gaitzitatea	Beste neurri batzuk (kontratuak ez berritzea, eszedentziak, lanaldiak luzeak/laburra, aurre-erretiroak, borondatezko bajak eta beste)	Lortutako aurrezkia > % 5 (demandek eta epaiek baden (balezkoan alpatzen da bakarrik))	Demandarik edo epairik baden (balezkoan alpatzen da bakarrik)
Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, SA	Beste iruzkin batzuk	X	X			BAI	BAI
Producción Informática de Navarra, S.L.	NASERTICEK xurgatua	X		X		BAI	BAI
Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, SA	Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, SAK (OEIN) xurgatua	X		X	X	BAI	
Nafarroako Berrikuntza eta Teknologia Agentzia, SA	CEINEK xurgatua	X	X			BAI	
Navarra de Verificaciones Legales, SA	CEINEK xurgatua	X	X			BAI	
Trabajos Catastrales, SA (TRACASA)	TRACASAK xurgatua	X		X	X	BAI	
Gestión de Deudas, SA	Sociedad de desarrollo de Navarra, SAK (SODENA) xurgatua	X	X			BAI	
Sociedad de Desarrollo de Navarra, S.A.	SODENAK xurgatua	X		X		BAI	
Navarra de Financiación y Control, SA	SODENAK xurgatua	X		X		BAI	
Navarra de Gestión para la Administración, S.A.	SODENAK xurgatua	X		X		BAI	
Natural Climate Systems, SA (MIYABI)	Ez zuen kudeatzailearik. Sozietate hori plantilla doitzeko prozesuan zegoen, meategi-iarluera amaitu ondoren.	X			X	BAI	
Potasas de Subiza, SA (POSUSA)	SALINASEK xurgatua	X		X		BAI	
Salinas de Navarra, SL					X	BAI	

Une hartan zeuden beste sozietate batzuek ez zuten langilerik. Honakoak ziren, zehazki: Riegos del Canal de Navarra, S.A. (zeinak gero izena aldatu eta Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SA – INTIA izena hartu baitzuen); Echauri Forestal, SL (zeina gero GANek xurgatu baitzuen); Fondo Jovenes Empresarios Navarros, SA (zeina gero SODENAK xurgatu baitzuen); Start Up Capital Navarra, SA; eta Sal Domestica, SA (gero Salinas de Navarra, S.A. – SALINAS izena hartu zuena).

## **Galdera, jakitekoa Nafarroan 39 enpresa publiko ote zeuden eta gaur egun horietatik 13 bakarrik geratzen diren, eta zeintzuk ziren enpresa horien 39 kudeatzaileen eginkizunak.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa Nafarroan 39 enpresa publiko ote zeuden eta gaur egun horietatik 13 bakarrik geratzen diren, eta zeintzuk ziren enpresa horien 39 kudeatzaileen eginkizunak, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa osatzen duten enpresetako kudeatzaileekin lotutako gai batzuei buruz (PES-0051). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuako Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

1.- Nafarroan 39 enpresa publiko zeuden eta orain 13 bakarrik daude?

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legeko 121. artikulua araber, Nafarroako Foru Komu-

nitateko Administrazioari eta haren erakunde publikoetako sozietate publikoak dira Nafarroako ondarea arautzen duen Foru Legean finkatutakoak.

Horri dagokionez, Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legeak, 103. artikulua gaur daukan testu indardunean, honakoa dio:

Nafarroako Foru Komunitateko eta haren menpeko erakunde publikoetako sozietate publikoak dira Foru Komunitateko Administrazioaren edo/eta haren menpeko erakunde autonomoen zuzeneko nahiz zeharkako partaidetza duten sozietateak, partaidetza horrek **sozietatearen kapitalaren gehiengo osoa osatzen badu**. Orobat dira sozietate publikoak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo/eta haren menpeko erakunde publikoek administrazio, zuzendaritza edo zaintza organoetako kideen erdia baino gehiago zuzenean nahiz zeharka izendatzeko gaitasuna dutenak; edo sozietateak jaulkitako partaidetzei dagozkien botoen gehiengoa dutenak.

Aurrekoa aplikatuta, ulertu beharra dago hasiera batean Nafarroako Foru Komunitateko sozietate publikoak 39 zirela (Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa barne).

Ondoren, hasiera batean zeuden sozietate publikoak eta gaur egun daudenak zehazten ditugu:



HASIERAN	GAUR EGUN
1.- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLU (NEKP)	1.- Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoa, SLU (NEKP)
2.- Nafarroako Berrikuntza eta Teknologia Agentzia, SA (ANAIN)	2.- Navarra de Suelo y Vivienda, SA (NASUVINSA)
3.- Agencia Navarra del Transporte y la Logística, SA (ANL)	3.- Agencia Navarra del Transporte y la Logística, SA (ANL)
4.- Baluarte Palacio de Congresos y Auditorio de Navarra, SA (BALUARTE)	4.- Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL (CAT)
5.- Ciudad Agroalimentaria de Tudela, SL (CAT)	5.- Instituto Navarro de Tecnologías e Infraestructuras Agroalimentarias, SA (INTIA)
6.- Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, SA (CEIN)	6.- Gestión Ambiental de Navarra, SA (GAN)
7.- Circuito Los Arcos, SL	7.- Navarra de Infraestructuras Locales, SA (NILSA)
Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, SA (CNAI)	8.- Empresa Navarra de Espacios Culturales, SA (ENEC)
9.- Ciudad del Transporte de Pamplona SA (CTPSA)	9.- Navarra Deporte y Ocio, SL (NDO)
10.- Echaury Forestal, SL (ECHAURI)	10.- Centro Navarro de Autoaprendizaje de Idiomas, SA (CNAI)
11.- Fondo Jóvenes Empresarios, SAU (FJE)	11.- Navarra de Servicios y Tecnologías, SA (NASERTIC)
12.- Gestión de Deudas, SA (GEDESA)	12.- Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, SL (CEIN)
13.- Instituto de Calidad Agroalimentaria, SA (ICAN)	13.- Trabajos Catastrales, SA (TRACASA)
14.- Instituto Tecnológico de Gestión Agrícola, SA (ITGA)	14.- Sociedad de Desarrollo de Navarra, SL (SODENA)
15.- Instituto Tecnológico de Gestión Ganadera, SA (ITGG)	
16.- Natural Climate Systems, SA (MIYABI)	
17.- Navarra de Financiación y Control, SA (NAFINCO)	
18.- Navarra de Medio Ambiente Industrial, SA (NAMAINSA)	
19.- Navarra de Servicios, SA (NASERSA)	
20.- Navarra de Suelo Industrial, SA (NASUINSA)	
21.- Navarra de Suelo Residencial, SA (NASURSA)	
22.- Navarra de Verificaciones Legales, SA (NAVELSA)	
23.- Navarra de Gestión para la Administración, SA (NGA)	
24.- Navarra de Infraestructuras Locales, SA (NILSA)	
25.- Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra, SA (OPNATEL)	
26.- Producción Informática de Navarra, SL (PIN)	
27.- Planetario de Pamplona, SA (PLANETARIO)	
28.- Potasas de Subiza, SA (POSUSA)	
29.- Riegos de Navarra, SA (RIEGOS)	
30.- Riegos del Canal de Navarra, SA	
31.- Sal Doméstica, SA (SALDOSA)	
32.- Salinas de Navarra, SL (SALINAS)	
33.- Sociedad de Desarrollo de Navarra, SA (SODENA)	
34.- Sociedad de Promoción de Inversiones e Infraestructuras de Navarra, SA (SPRIN)	
35.- Start Up Capital Riesgo, SA (START UP)	
36.- Territorio Roncalía, SL	
37.- Trabajos Catastrales, SA (TRACASA)	
38.- Viviendas de Navarra, SA (VINSA)	
39.- Gestión Ambiental – Viveros y Repoblaciones de Navarra, SA (VIVEROS)	

Gaur egun, horretaz gainera, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak zeharka, 13 sozietate horietako batzuen bitartez, honakoetan hartzen du parte:

Natural Climate Systems, SL (MIYABI)

Salinas de Navarra, SA (SALINAS)

Potasas de Subiza, SA (POSUSA)

Start Up Capital Riesgo, SA (START UP)

2.- Zer eginkizun dituzte gaur egun enpresa horietako 39 kudeatzaileek?

Aurreko 38 sozietateetatik (NEKPa kenduta), 30 kudeatzailek kudeatzen zituzten; izan ere, horietako batzuek enpresa bat baino gehiago zuzentzen zituzten.

Aurreko 30 kudeatzaileetatik:

– Batek kudeatzaile gisa jarraitzen du.

– Zazpik dibisioko zuzendari gisa jarraitzen dute.

– Hamabik kargua utzi zuten.

– Gainerakoak aurrez sozietatearen barruan zeuzkaten lanpostuetara itzuli ziren, lanpostu horietan zeudela iritsi baitziren kudeatzaile izatera.

3.- Horietako zenbatek mantentzen du bere lanpostua enpresa publikoren batean?

Adierazi berri dudanez:

Batek kudeatzaile gisa jarraitzen du.

Zazpik dibisioko zuzendari gisa jarraitzen dute.

Hamar aurrez sozietatearen barruan zeuzkaten lanpostuetara itzuli ziren, lanpostu horietan zeudela iritsi baitziren kudeatzaile izatera.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 13an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria, Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, “CEIN-Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra”ko kudeatzailetzari enplegu-erregulazioko espedientearen ondotik dagokion lansari-murrizketa proportzionalari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, “CEIN-Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra”ko kudeatzailetzari enplegu-erregulazioko espedientearen ondotik dagokion lansari-murrizketa proportzionalari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du xehetasun

batzuk ezagutu nahi baititu Centro Europeo de Empresas e Innovación” enpresan onetsitako enplegu erregulazioko espedienteari buruz (PES-0052). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariak:

CEINen egindako enplegu erregulazioko espedientearen ondoren, sozietate horren kudeaketa SODENAK hartu du. Horrekin, Centro Europeo de Empresas e Innovación de Navarra, SLko bai kudeatzaile-lanpostua, bai lansaria % 100 amortizatu dira.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 13an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## Galdera, enpresa publikoek Nafarroan duten etorkizunari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak enpresa publikoek Nafarroan duten etorkizunari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 23ko 42. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako enpresa publikoen etorkizunari buruz (PES-0053). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Eko-

nomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariak:

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak enpresa-sektore publikoa berrantolatzeke ekintza plana onetsi du berriki. Plan horren laburpen bat erantsi dugu, non jasotzen baitira egindako galderen erantzunak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 15ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubezu

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

## Galdera, euskaltegi publikoei eta herri ekimenekoei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak euskaltegi publikoei eta herri ekimenekoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 29ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du euskaltegi publikoetan eta herri ekimeneko euskaltegietan

matrikulatutako ikasleen kopuruari buruz (8-13/PES-00055). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak, dagokion zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

Hurrengo taulan, azken bost urteotako bilakera erakusten dugu, eskatu bezala euskaltegi bakoitzeko ikasleen kopuruaren arabera sailkatu-rik, betiere ikasturte bakoitzeko lehenengo hiru hilkoaren amaierako datuak hartuta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

	2008/09	2009/10	2010/11	2011/12	2012/13
Escuela Oficial de Idiomas a distancia	1.622	1.320	1.253	1.274	1.672
Euskategi Público Zubiarte	582	728	849	927	968
Escuela Oficial de Idiomas Pamplona	673	733	794	791	802
Euskarabidea/INAP (personal AAPP)	1.014	874	677	506	531
Arturo Campion (Pamplona)	334	215	306	279	190
Donibaneko AEK (Pamplona)	267	373	365	265	184
Iruñezar (Pamplona)	187	143	161	173	134
Izarbeibarra (Puente la Reina)				132	134
Barañain	149	130	112	138	119
Sakana	144	151	135	123	112
Lizarrako AEK (Estella-Lizarra)	88	111	120	144	102
Pirinioak (Roncal, Salazar, Aezkoa...)	32	53	77	92	97
Escuela Oficial de Idiomas de Tudela	57	88	81	91	81
Tafalla	52	74	86	87	75
Atarrabia (Villaba)	61	53	53	38	49
Bortziriak (Cinco Villas) Barnetegia	235	192	194	179	48
Leitzaldea (Basaburua)	49	64	59	39	47
Burlata (Burlada)	60	72	53	98	41
Malerreka	41	42	41	48	25
Baztan	52	40	30	35	23
APYMA de Ikastola Amaiur	32	18	23	20	21
Ayuntamiento de Esteribar			17	13	21
Ayuntamiento de Orkoién	38	27	21	21	20
Ultzama	67	49	45	24	19
Tuterako AEK (Tudela)	10	20	26	28	17
San Adrian	22	18	17	15	14
NIE (Federación de Ikastolas de Navarra)	8	2	10	9	4
Universidad Pública de Navarra	75	53	28	20	0
Arrosadia	98	120	109		
Arantzako barnetegia	126	107	114	116	

## **Galdera, jakitekoa babes ofizialeko zenbat etxebizitzatan izan diren kaleratzeak.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maite Esporrín Las Heras andreak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa babes ofizialeko zenbat etxebizitzatan izan diren kaleratzeak, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 29ko 44. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 23an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maite Esporrín Lasheras andreak informazioa eskatu du, jakin nahi baitu babes ofizialeko zenbat etxebizitzatan gertatu diren gaur arte etxebizitzak Nafarroan, kopurua urtez urte zehaztuta, eta zer jarrera hartu duen Nafarroako Gobernuak horri dagokionez (PES-54/13). Hauxe da Sustapen kontseilariaren erantzuna:

Nahiz eta epaile batzuek departamentuari jakinarazi ohi dioten etxebizitza babestuak enkantean jarri behar dituztela edo galdetu ohi duten etxebizitza horiek izan ditzaketan gehieneko prezioei buruz edo enkanteko adjudikazio-hartzaileen ezaugarriei buruz, Sustapen Departamentuak ez ditu ezagutzen etxebizitza mota horietan izaten diren hipoteka-exekuzio guztiak, eta ez zaio jakinarazten horietako zenbatetan, azkenean, aurreko jabeak enbargoa kentzen duen. Hori dela eta, momentuz ezin ditugu eskatutako datuak eman.

Hala eta guztiz ere, beste batzuetan aipatu den bezala, Etxegabetzei Arreta Emateko Batzordea lanean ari da Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekin konpromiso bat ezartzeko, hain zuzen ere azken horrek batzordeari etengabe informazioa eman diezaiola gure erkidegoan eragina duten etxebizitzak datuei buruz.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 14an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## **Galdera, Tafalla eskualdeko buru gisa aitortzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak Tafalla eskualdeko buru gisa aitortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 6ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tafallari eskualdeburu izaera aitortzeari buruz, hertsiki bere errolda osatzen duten pertsonen bano gehiagori

zerbitzu emateagatik finantzaketa-lerro berariazkoak esleitzearen ondorioetarako (8-13/PES-00062). Hauxe da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak 259. artikuluan xedatzen duenez, toki entitatei behar adina baliabide emanen zaizkie dituzten eskumenak erabili eta helburuak bete ditzaten; baliabide horiek toki ogasunei buruzko foru lege batean arautuko dira, gai horrek Nafarroaren toki araubide berekia osatzen baitu –Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18.2 artikulua–.

Aurreikuspen hori betez, parte-hartze funtsaren diseinuak oreka horizontalaren oinarriko ideien

ari erantzuten dio, halako moduz non gehiago jasoko duen gastu-behar gehiago daukanak edo/eta diru-sarrerak lortzeko gaitasun gutxiago duenak.

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsari buruzko foru lege proiektuak egiteko prozesuetan, aztertu izan da aukerarik ba ote legokeen merindadeko nahiz eskualdeko buru izateagatik herri batzuei modu berezitan laguntza emateko, betiere eskualdeko burua izatea zer den zehazteak daukan zailtasun gehigarriarekin.

Egindako azterketen ondoren, ez da aukera hori sartu Nafarroako Gobernuak egindako proiektuetan. Bestalde, ez dago jasota Tafallako Udalak berariazko eskaririk egin duenik foru parlamentariak egindako galderaren ildotik; izan ere, eskari hori egin izan balitz, erantzun honetan adierazitakoaren bidetik erantzunen zitzaion.

Departamentu honen balorazioaz gainera, NUPek toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren banaketarako formula aztertu eta analizatu izan du. Azterlan horren ondorioa izan zen aldagai-sail bat aplikatu beharra zegoela, baina aldagai horien artean ez zegoen kasuko toki entitatea eskualdeko burua izatearena, jo baitzen horrek gastuan ez zeukala aipatzeko moduko eraginik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Pamplona, 24 de mayo de 2013

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, Lizarra eskualdeko buru gisa aitortzeari buruz buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak Lizarra eskualdeko buru gisa aitortzeari buruz buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 6ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Lizarrari eskualdeburu izaera aitortzeari buruz, hertsiki bere errola osatzen duten pertsonen bano gehiagori zerbitzu emateagatik finantzaketa-lerro berariazkoak esleitzearen ondorioetarako (8-13/PES-00063). Hauxe da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legeak 259. artikuluan xedatzen duenez, toki entitateei behar adina baliabide emanen zaizkie dituzten eskumenak erabili eta helburuak bete ditzaten; baliabide horiek toki

ogasunei buruzko foru lege batean arautuko dira, gai horrek Nafarroaren toki araubide berekia osatzen baitu –Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoko 18.2 artikulua–.

Aurreikuspen hori betez, parte-hartze funtsaren diseinuak oreka horizontalaren oinarritzko ideari erantzuten dio, halako moduz non gehiago jasoko duen gastu-behar gehiago daukanak edo/eta diru-sarrerak lortzeko gaitasun gutxiago duenak.

Toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsari buruzko foru lege proiektuak egiteko prozesuetan, aztertu izan da aukerarik ba ote legokeen merindadeko nahiz eskualdeko buru izateagatik herri batzuei modu berezitan laguntza emateko, betiere merindadeko nahiz eskualdeko burua izatea zer den zehazteak daukan zailtasun gehigarriarekin.

Hala eta guztiz ere, egindako azterketen ondoren, ez da aukera hori sartu Nafarroako Gobernuak egindako proiektuetan. Bestalde, ez dago jasota Lizarrako Udalak berariazko eskaririk egin duenik foru parlamentariak egindako galderaren ildotik; izan ere, eskari hori egin izan balitz, erantzun honetan adierazitakoaren bidetik erantzunen zitzaion.



Departamentu honen balorazioaz gainera, NUPek toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren banaketarako formula aztertu eta analizatu izan du. Azterlan horren ondorioa izan zen aldagai-sail bat aplikatu beharra zegoela, baina aldagai horien artean ez zegoen kasuko toki entitatea eskualdeko burua izatearena, jo baitzen horrek gastuan ez zeukala aipatzeko moduko eraginik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

## **Galdera, Nafarroako Foru Komunitatean osasun laguntza etengabea eta larrialdikoa emateko beharrezkoak diren osasun arloko langileei buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Samuel Caro Sádaba jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Foru Komunitatean osasun laguntza etengabea eta larrialdikoa emateko beharrezkoak diren osasun arloko langileei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 6ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Socialistas de Navarra parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Samuel Caro Sádaba jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakin nahi baitu ea "Nafarroako Gobernuak azterlanik egin duen Nafarroako Foru Komunitateko osasun laguntza etengabe eta larrialdikorako osasun-langileen arloko beharrezkoak buruz" (PES-00058). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Osa-suneko kontseilariak:

Osasun-langileek laguntza etengabe eta larrialdikoaren arloan dauzkaten beharrezkoak Nafarroako oinarritzko osasun laguntzako osasun zentron eta arreta jarraituko guneen funtzionamendu-ordutegiari buruzko foru dekretua prestatzearen harira egindako lanetan aztertu ziren.

Arreta jarraituko gune bakoitzeko giza baliabideen egungo egituraketatik abiatuta, Nafarroako arreta jarraituko eta larrialdiko arretako osasun-

langileen beharrezkoak aztertu ziren, honako irizpideen arabera:

- Arretako egungo isokronoei eustea, jarduketa-denborak ez okertzeko helburuari erreparatuta.

- Baliabideen proportzionaltasunaren balorazioa, jarduketa-kopuruan oinarritutako beharrezkoak irizpideen arabera eta lehia (lurralde-barruti berean eta aldi berean larrialdiko gertakariak ego-tea) izateko aukeraren arabera.

- Baliabideen erabilera efizientziaz jokatzeko, jardueraren arabera.

Horrenbestez, eredu berriaren diseinuan, kalitate teknikoko, efizientziako eta gogobetetzeko irizpideak hartu ziren kontuan, bai gizarteari begiratuta, bai arretak ukitutako profesionalei begiratuta. Jarraitutako irizpideen artean, honakoak nabarmendu behar dira:

#### **Kalitate irizpideak**

=> Egokitasuna. Arreta-ereduak egokia izan behar du gaixoei dauzkaten arreta-beharrezkoen mota desberdinetarako.

=> Baliagarritasuna. Baliabide guztiak bermatuko dira, esleitutako populazioaren arabera, sortzen den jardueraren arabera eta lehia izateko aukeraren arabera –hau da, aldi berean bi larrialdi baino gehiago egoteko aukeraren arabera–.

=> Ekipamendua. Arreta jarraituko guneak indartu eta behar bezala hornituko dira, haiek egoerak ebazteko daukaten gaitasuna ahal den handiena izan dadin.

=> Profesionalen gaitasuna, prestakuntza egoiaren bidez eta behar adinako kasuistikaren (masa kritikoa) bitartez.

=> Ordutegi arruntean arreta ematea, aldi horretan laguntza pertsonalizatuaren jarraitutasuna lortzeari begira hori posiblea den guztietan.

=> Arruntaz besteko ordutegian arreta ematen jarraitzea, larrialdietako eta APEetako profesionalen koordinazioaz baliatuta.

=> Irisgarritasun geografikoa, zeina zentroyen kopuruaren, lurraldean banatuta dauden moduaren eta erreferentziako herritik zentroya joateko denboraren arabera izan den baita. Irizpide gisa ezartzen da arreta gunera joateko gehieneko denbora, populazioaren % 95aren kasuan, ez dela 30 minututik gorakoa izan.

– Larrialdiko arretaren eredu berriarekin, honako isokronoei eutsi zaie:

- 573.792 biztanle 10 minutu edo gutxiagoko distantzia batean daude:
- 63.987 biztanle 10 eta 20 minutu bitarteko distantzian daude.
- 2.743 biztanle 20 eta 30 minutu bitarteko distantzian daude.
- 399 biztanle 30 minutu baino gehiagoko distantzian daude.

– Laburbilduz:

- Nafarroako populazioaren % 90 10 minutu baino gutxiago distantzian dago.
- % 9,6 20 minutu baino gutxiagoko distantzian dago.
- % 0,4 30 minutu baino gutxiagoko distantzian dago.
- % 0,006 30 minutu baino gehiagoko distantzian dago.

Isokronoei eutsiko liokeen eredu baten alde egin zen, lehenetsunezko irizpide gisa kontuan hartuz, gainera, populazioa arreta jarraituko gunetara joateko duten ahalbidea ez gutxitzea. Hori dela eta, Tracasa konpainiari eskatu zitzaion azterlan bat egin zezala, geokoparen sistema bitartez, bai kilometroyen arabera distantziak, bai eskualde bakoitzeko arreta jarraituko gunetatik haien arreta-erradioan dauden herrietara iristeko denborak analizatzeko, betiere honakoak baloratu-ta: errepideen egoera, klimatologiari begira daukaten kokapena eta ibilbidean gorabeherak egotea.

### **Efizientzia irizpideak:**

=> Ereduaren malgutasuna, egoeren dibertsitateari erantzuna emateko. Konponbide desberdina egoera desberdinetarako.

=> Proporzionaltasuna; hau da, iristeko baldintzak prestazioaren garrantziaren arabera izatea.

=> Arreta jarraituko gunen bakoitzaren mugaketaren eta kokapenaren optimizazioa, honakoen arabera, hain zuzen: artatu beharreko populazioaren zenbatekoa, haren dispersioa (isokronoak), erantzuteko denbora, laguntza-jarduera, hartan gerta daitekeen lehia eta herriburuetako laguntza zentroetatik eta ospitale-zentroetatik zenbateko distantzian dagoen. Arretarako modalitatea fisikoki bertan egoteko nahiz lokalizaturik egoteko izan dena, irizpide beren arabera. Horri dagokionez, zentroetako lantaldeak halako moduz antolatu dira non bertan egoteko zerbitzua egon den baita biztanle-kopuru handiena duten zentroetan eta arretaren beharra izateko aukera handiagoa den orduetan.

• Hiri zentroak. Bertan egoteko arreta 24 orduz. Larrialdiko arreta 15:00etatik 18:00etara, Larrialdietarako eta Ospitale-aurreko Arretarako Zerbitzua eskutik, ezarritako zentroetan.

• 1. motako landa-zentroak. Bertan egoteko arreta 24 orduz lanegunetan eta jaiegunetan.

• 2. mailako landa-zentroak. Eredu mistoa. Bertan egoteko arreta 20:00ak arte eta lokalizatzeko sistema 20:00etatik 8:00etara, lanegunetan eta jaiegunetan.

• 3. motako landa-zentroak. Bertan egoteko arreta 15:00ak arte eta lokalizatuta egoteko 15:00etatik aurrera, lanegunetan eta jaiegunetan.

• Jarduketa bereziko landa-zentroak.

=> APEen protagonismoa, haien jarduera ahal den guztian handituz ordutegi arruntean, eta bihar-munean libratzea eragiten duten guardiak saihestuz.

### **Gizartearen gogobetetzearen arabera irizpideak:**

=> Arreta jarraituko ordutegia luzatzea.

=> Arreta jarraituko gunen kokapena populazio-fluxu naturalen arabera egokia izatea.

=> Larrialdiko arreta-gune desberdinetarako iristeko askatasuna, inongo lurralde-mugaketarik gabe. Larrialdien arloan, "gaixoa behar duenean joaten da egokitzen jotzen duen tokira".



=> Egungo antolamendu-egitura aintzat hartzea, aldatzeko proposamenak egoki justifikatuta.

=> Geografikoki ongi kokatuta dauden arreta jarraituko guneen dotazioa indartzen da, biztanle gehiago erakar ditzaten.

### **Profesionalen gogobetetzearen arabera irizpideak:**

=> Egungo antolamendu-egoera aintzat hartzea.

=> Prestakuntza, APEen eta larrialdi gailuen arteko koordinazioa eta ebazteko gaitasuna hobetzea.

=> Garapen profesional erakargarriagoa landa eremuetako larrialdi zerbitzuetan lan egiten duten profesionalentzat.

=> Aurkezten den proposamenerako pizgarri ekonomiko egokia ematea.

### **Arreta jarraituko zerbitzuen zorroa**

Honakoa izanen da arreta jarraituko zerbitzuen zorroa:

– Eguneko hitzordua:

- Ezin gerora daitekeen eskaria: Ordu-tegi arruntetik kanpo sortzen diren arazo akutuak.

- Zaintzen jarraitutasuna.

– Hitzordu itundu ez-pertsonalizatua.

- Gaixo larri eta ez-egonkor edo zainketa arin-garriak hartzen dituztenen jarraipen ez-pertsonalizatua.

- Zaintzen jarraitutasuna: 8 eta 12 ordu bitarteko periodikotasuna eskatzen duten tratamenduak eta sendaketak.

– Hitzordu itundu pertsonalizatua (familiako sendagilearen edo erizainaren eskutik).

- Gaixo larri eta ez-egonkor edo zainketa arin-garriak hartzen dituztenen jarraipena.

- Osasun-langileak berak gaixo batekin hitzordu bat ezartzen duenean –gaixo kronikoen kasuan, gehienetan– eta arrazoi batzuk tarteko ordute-gi arruntan gaixo hori artatzerik ez dagoenean.

Arreta jarraituak bere barruan biltzen du gerta daitezkeen larrialdiak artatzea, arreta arrunteko aldian gertatzen den bezala.

Gaixo kronikoen zainketak direla eta eskariak gora egin duenez, aurreikustekoa da epe ertainean beharrezkoa izanen tele-medikuntzako eta telelaguntzako sistemen bitartez monitorizatuta dau-

den gaixoak ikuskatzeko eta haiei aholku emateko zerbitzu bat eskaini behar izatea. Eginkizun horrek ongi definitzen du arreta jarraituak etorkizunean gero eta garrantzi handiagoa izatea.

Larunbat, igande eta jaiegunetan, arreta jarraiturako ordutegi bat finkatuko litzateke, eta ordutegi horretan larrialdietako langileak arduratuko lirateke hartaz.

Baliabideak jardueraren arabera proportzionalak izateari dagokionez, Nafarroako Foru Komunitateko arreta jarraituko gune bakoitzaren jardura aztertu zen, 2011ko eta 2012ko data desberdinetan eta ordu-tarte desberdinetan, eta egun bakoitzeko arreta-lanen batez bestekoa kalkulatu zen, osasun eskualde oinarritzkoen arabera eta arreta jarraituko guneen arabera. Informazio hori erantsitako tauletan zehazten da. Taula horietan, eskualde bakoitzaren arabera arreta-ereduak eta arreta-guneetarako distantziak ere ematen dira.

Jarduera-maila desberdinak daudela ikusten da, eta ontzat jotzen da zenbat eta jarduera handiagoa egon orduan eta lehia izateko aukera handiagoa dagoela –horrenbestez, bertan egoteko baliabideak gomendatzen dira–, eta zenbat eta jarduera txikiagoa egon, orduan eta lehia izateko aukera gutxiago dagoela –orduan, lokalizatzeko sistemak onar daitezke, eskualdearen eta jardueraren arabera proportzionatuagoak direlakoan.

Kontuan hartu behar da bertan fisikoki egoteko guardiaren ereduak ordutegi arruntan laguntza-eten handiagoak eragiten dituela, libratzea nahitaezkoa delako. Egoera hori landa eremuetako larrialdi zerbitzuen ereduari gertatzen da, jardura edozein dela ere, eta horren antolamenduaren eta arreta-kalitatearen arloko kostuak dauzka, kuporako arreta-jarraitutasuna bermatzen ez delako.

Gainera, plantillak aztertu ziren, eskualde eskualde, oinarritzko osasun laguntzako baliabideei eta larrialdi-baliabideei erreparatuta, antzemate aldera haiek egokiak ote diren eskualde bakoitzeko dagoen populaziorako.

Logikoa den bezala, alde handiak aurkitu ziren: zenbat eta populazio txikiagoa eta dispertsio handiagoa, orduan eta gastu handiagoa, eta zenbat eta kontzentrazio handiagoa, orduan eta gastu txikiagoa. Hori guztia baloratu zen eredu berrian baliabideen intentsitateari eusteari begira.

Halaber, modu osagarrian, honakoak egin ziren: arau-esparru nazionalari eta autonomikoari buruzko azterketa bat; ospitalez kanpoko larrialdi-premiei buruzko Delphy azterlana; hobekuntza plana ezarri zen zentroetako profesionalen iritzibilketa; material- eta antolamendu-beharrak.

Azterlan horietan oinarrituta, erreforma proposamena egin zen, honakoak beteko dituen eredu baten arabera: irisgarritasunari eustea, baliabideei proportzionaltasuna ematea eta sistemaren iraunkortasuna eta kalitatea bermatzea.

Gainera, arretan dihardutenen plantilla orokorra egonkortu zen, profesional bakoitzeko BOTak

homogeneizatuz eta hobekuntza planaren ezarpena erraztuz.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 192. artikulua beteitzeko.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

## **Galdera, Noingo Aena-Nafarroako Aireportuari eta Renfek eta Adifek Irun-Altsasu eta Armiñon-Gasteiz-Ribaforada lineetan kudeatzen duten trenbide sareari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, Noingo Aena-Nafarroako Aireportuari eta Renfek eta Adifek Irun-Altsasu eta Armiñon-Gasteiz-Ribaforada lineetan kudeatzen duten trenbide sareari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 6ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak informazioa eskatu du Noingo Aena-Nafarroako Aireportuari eta Renfek eta Adifek Irun-Altsasu eta Armiñon-Gasteiz-Ribaforada lineetan kudeatzen duten trenbide sareari buruz (PES-59/13). Hauxe erantzun dio Sustapeneko kontseilariak:

1. Nafarroako Gobernuak zerbitzu horien pribatizazioa ekiditeko abian dituen ekimenei dagokionez, esan beharra dago, lehenengo eta behin, galderan aipatzen diren liberalizazio prozesuak Europako politikaren esparru orokorrean daudela kokatuta: lehenengo, merkatuari eta moneta bakkarrari buruzko politika orokorrenetan, zeinen gainean eraikia baitago Europar Batasuna.

Plano hurbilago batean, garraioen politika komunaren aldeko apustua dago, hainbat zutaberen gainean garatzen dena. Horien artean, honakoak nabarmentzen ditugu:

– Monopolio nazionalak akabera emateko beharra, nazioetako monopolio-enpresa tradizionalak metatu dituzten zorrak saneatu ondoren eta haien ordez lehia-merkatu batera egiaz irekitako beste enpresa batzuk ezarri ondoren, operadore berriekin.

– Garraiobide desberdinen arteko berrorkatzea, horietako bakoitzari berezkoak zaizkion kostu ekonomikoak, ingurumenekoak eta sozialak esleituta.

– Garraio sistema nazionalak, oro har, eraldatzeko beharra, Europa barreneko sareen arteko operatibotasuna hobetzeko modu onena baita.

Horrenbestez, liberalizazioa ez da Europako garraio sistema integratu, bideragarri eta bateragarri baten garapenaren helburu eskusiboa. Izan ere, helburua lortzeko bitarteko bat da liberalizazioa, eta helburu hori, berriz, elkarren arteko operatibotasun efizientea da.

Rubio jaunaren hitzak erabiliz "Madrilgo gobernuak" azken urte hauetan hartu dituen neurriek berarekin ekarri dute Europako politika hori gartztea, 90eko hamarkadaren hasieratik aldarrikatzen joan diren Europako zuzentarauak pixkanaka ezartzearen bidetik.

Espainiako aireportuen sektoreari dagokionez, Europako herrialde guztietan bezala, eraldaketa sakon bat izan du, aire bidezko garraioa liberalizatzeko 1992an abian jarritako politika europarraren ondorioz. Politika horren xedea, izan ere, lehia areagotzea da. Hartara, jasota zegoen estatu kide bateko aire-operadore oro Europar Batasuneko edozein tokitan ezarri ahalko zela, ibilbideetako edozeinetan operatu ahalko zuela (beste estatu

kide bateko kabotaje-trafikoan ere bai), ez zela baztertua izanen bere nazionalitatea dela kausa aireportuetako aireratze eta lurreratze ordutegi-tar-teen banaketan eta prezioak libreki finkatu ahalko zituela.

Europa mailako liberalizazio prozesu hori hiru arau-multzoren bitartez bideratu da: 1987koa, 1990ekoa eta behin betikoa, hain zuzen 1992koa. Azken horretan, garrantzitsuenak onetsi ziren: Kontseiluaren CEE 2407/92 Erregelamendua, aire-konpainiei lizentziak emateari buruzkoa; Kontseiluaren CEE 2408/92 Erregelamendua, Europako aire-konpainiak Europa barreneko aire-ibilbide-etan sartzeari buruzkoa, eta Kontseiluaren CEE 2409/92 Erregelamendua, aire-zerbitzuen tarifei eta fletei buruzkoa.

Trenbide-sistemari dagokionez, tren garraioa liberalizatze prozesua, Europako zuzenbidearen ikuspuntutik, pixkanaka gauzatu da. Garraioen sektorean, oro har, eta trenbidearen sektorean, bereziki, Europako politika bat gaitzen duen abiapuntua Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren 155. artikulua da.

Zuzentarau hori zenbait urte geroago osatu zen trenbide enpresei lizentziak emateari buruzko 95/18/CEE zuzentarauarekin eta azpiegitura-gaitasunen adjudikazioari eta kasuko erabilera-kanonak finkatzeari buruzko 95/19/CEE zuzentarauarekin.

Zuzentarau horiek onestearekin, esan daiteke jada Europako erakundeek hazten doan kezka bat erakusten dutela Europako trenbide sistema integratu, bideragarri eta bateragarri bat garatzeko. Trenbide-garraiorako politika komun bat garatzearekin erakunde horiek lortu nahi duten helburua, jada lehenengo zuzentzarauen testuan islatu zena, egiazko trenbide sistema integratu bat sortzea da, ordura arteko egoera gaindituta; izan ere, egoera horren ezaugarria zen trenbide sistema berekiak egotea, herrialdetik herrialdera desberdinak, elkarren arteko operatibotasunerako zailtasun larriak tarteko; gainera, sistema horiek antzinako enpresa publikoaren monopolioa ziren.

Hori dela eta, Europako Zuzenbidetik bi oinarriko helburu bultzatu nahi dira, trenbide-garraio araupetzeko orduan, hasierako zuzentarau horiek onetsi zirenetik: elkarren arteko operatibotasuna eta merkatua lehiarako irekitzea. Gero, zuzentzarauen lau pakete aldarrikatu izan dira, 2001etik hasi eta 2013ra arte, 1., 2., 3. eta 4. trenbide-paketeak izenez ezagutu direnak. Haietan, izan ere, aipatutako helburu orokorren bilaketan sakondu da.

Aurreko guztia esanda, gogorarazi beharra dago, nolana ere, galderan aipatutako zerbitzu

eta sare horien gaineko titularitatea eta eskumena estatuarenak direla.

Trenbideei dagokienez, nahiz eta Foruaren Hobekuntzako 49.1.f) artikulua arabera Nafarroari dagokion trenbideen gaineko eskumen eskusiboa –baldin eta haien ibilbidea osorik foru lurraldean garatzen bada– eta, termino berdinetan, bitarteko horiek erabiliz garatzen den garraioaren eskumen eskusiboa, kontua da Nafarroako Foru Komunitateko lurraldetik doazen trenbide-azpiegitura guztiak Estatuko Interes Orokorreko Trenbide Sarean sartuta daudela. Horrenbestez, une hauetan, Nafarroako Foru Komunitateak ez du eskumenik bere lurraldea zeharkatzen duten trenbide-azpiegituren gainean.

Aireportu-azpiegituri dagokienez, Foruaren Hobekuntzako 44. artikulua ezartzen du Nafarroak eskumen eskusiboa duela interes orokorrekoak ez diren aireportuen gainean. Horri dagokionez, Aireportu Zibilen Sailkapenari eta Kudeaketari buruzko azaroaren 27ko 2858/1981 Errege Dekretuko xedapen iragankorrak ezartzen du estatuaren jabetzakoak diren aireportuak estatuak zuzenean kudeatzekoak diren interes orokorreko aireportutzat sailkatuta daudela jo beharra dagoela. Horien artean, Noain-Iruñekoa dago, zeinak sailkapen horri eusten baitio 2858/1981 Errege Dekretuak indarra hartu zuenetik. Izan ere, errege dekretu horrek ezarri zuen Aena Aeropuertos SAk ustiatzen dituen aireportu eta heliportu guztiek –alde batera utzita estatuko merkataritza-sozietateak haren sozietate filialek edo lagapen araubidekoek kudeatzen dituzten– interes orokorreko aireportu gisa sailkaturik jarraituko dutela. Horrenbestez, une hauetan, Nafarroako Foru Komunitateak ez du eskumenik bere lurraldean ezarrita dauden aireportu-azpiegituren gainean.

Aurrekoaren guztiaren indarrez, Nafarroako Gobernuak ez du ezertxo ere esateko garraio-azpiegituren eta -zerbitzuen Europako eta nazioko politiken araberrako liberalizazio-prozesuen aurka.

2. Nafarroako Gobernuak abiatuak dituen ekimenei dagokienez, zeharkakoak baizik ezin dira izan: entitate eskudunek zerbitzuak ematearen arloan hartzen dituzten neurriak begiratzea eta Nafarroako Foru Komunitatearen aukerak eta beharrianak adieraztea, dauden edo ezartzea egokitzat jotzen diren bide formal ea ez-formalen bitartez.

Distantzia ertaineko trenbidearen bitartezko bidaiarien garraio publikoko zerbitzuei dagokienez –RENFE operadoreak ematen ditu Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dagoen ADIFen

trenbide-azpiegitura erabiliz-, honakoak direla esan behar dugu, lehenengo eta behin:

Erkidegoen artekoak: Gasteiz-Irun; Gasteiz-Iruña; Zaragoza-Castejón; Burgos-Gasteiz-Iruña; Zaragoza-Castejón-Logroño; Zaragoza-Castejón-Iruña.

Erkidegoaren barrenekoak:

Iruña-Castejón.

Ministro Kontseiluaren 2012ko abenduaren 28ko Erabakiaz ezarri zen estatuko Administrazio Orokorraren eskumenekoak diren distantzia ertaineko bidaiarien garraio zerbitzuetatik zeintzuek duten zerbitzu publikoa emateko betebeharra. Ikus daitekeen bezala, Iruña-Castejón korridorea bertan behera geratu da, eta haren zerbitzuak Zaragoza-Castejón-Iruña korridorean sarturik geratu dira. Sustapen Ministerioak oraindik re ez du jakinarazi zein izanen den zerbitzuen diseinua. Bitartean, Nafarroako Gobernuak bere alegazioak formalki aurkeztu dizkio Ministerioari.

Aireportu zerbitzuei dagokienez, Nafarroako Gobernuak Aenari aditzera eman dio, Noain-Iruñeko aireportuko zuzendaritzaren bitartez, interesa duela berehala Aireportu Koordinaziorako Batzordea abian jartzeko. Batzorde hori Aurrekontuen egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna bultzatzeko neurriei buruzko uztailaren 13ko 20/2012 Errege Lege-dekretuan aurreikusitako zen.

Honakoak izanen dira batzorde horren eginkizunak:

– Aireportu-jardueraren garapena bultzatzea.

– Garatu beharreko estrategia definitzea.

– Aire-garraioa sustatzearekin lotutako jarduerak bideratzea.

– Aire bidezko konektibitatea indartu dadin bultzatzea, nazioarteko eta nazioko aire-ibilbide berriak ezartzearen eta sustatzearen bidetik.

– Aireportu-kudeaketaren edozein alderdiri buruzko datuak eta informazioa biltzea, gainerako eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren neurrian.

– Bidaiarien garraioa eta aire-zama areagotzeko komenigarritzat jotzen diren gainerako eginkizunak betetzea, bai eta interes orokorreko aireportuen arloko gainerako xedapenetan esleitutakoak ere.

3. Azkenik, azkeneko galderari dagokionez, jakinarazi behar dizut Nafarroako Gobernuak ez duela pentsaturik ezer egitea aireportuetako nahiz trenbideetako azpiegituren eta zerbitzuen gaineko eskumena bereganatzeko transferentziak eskatze-ari buruz.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 24an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin urte honetarako berezko defizit-mugei buruz negoziatzearen gainekoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin urte honetarako berezko defizit-mugei buruz negoziatzearen gainekoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 6ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuak Espainiako Gobernuarekin ekitaldi honetarako defizit-muga propioak negoziatzeari buruz (PES-0060). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

Administrazio publikoentzako aurrekontu-egonkortasunari buruzko araudia, zeina 2001ean onetsi baitzen Amsterdamgo Kontseiluan 1997ko ekainean hartutako Egonkortasun eta Hazkunde Akordioa garatuz, hitzarmen ekonomikoan ezarritakoaren bidez da aplikatzekoa Nafarroako Foru Komunitatean.

25/2003 Legeak hitzarmen ekonomikoa aldatu zuen, eta hitzarmen ekonomikoko 67. artikuluan aurreikusitako Batzorde Koordinatzailearen esku-menen barruan sartu zuen aurrekontu-egonkortasunaren arloan lankidetzan eta koordinaturik jarduteko konpromisoari buruzko akordioa.

Batzorde Koordinatzaileak, 2007ko azaroaren 5ean egindako bilkuran, 1/2007 zenbakiko Aktako XV. eranskinean bildutako aurrekontu-egonkortasuneko lankidetzan eta koordinazio-konpromisoak erabaki zituen.

Beste konpromiso batzuen artean ezartzen du Batzorde Koordinatzaileak zehaztutako duela zein den Nafarroako Foru Komunitaterako aurrekontu-egonkortasunaren helburua hurrengo hiru ekitaldietarako, Gobernuak sektore publiko osorako aurrekontu-egonkortasunaren helburua onetsi eta hilaibeteko epean.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Foru Komunitatearen eta estatuko Administrazio Orokorraren arteko bitariko alde aurreko akordioak lortu ahaliko dira, helburu komuna onetsi aurretik.

2011ko irailean, Espainiako Konstituzioko 135. artikulua aldatu zen, eta gure antolamendu juridikoaren arau-maila gorenean arau fiskal bat sartu zen, zeinak gure herrialdeko egiturazko defizit publikoa mugatzen duen eta zor publikoa ere mugatzen duen Europar Batasuneko Funtzionamendu Ituneko erreferentziako balioaren arabera. 135. artikulua berriak ezartzen du artikulua horren edukia lege organiko baten bitartez garatu behar delako dela.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak konstituzio-agindua bete zuen.

Azken xedapenetako hirugarrenak xedatzen du ezen Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 64. artikuluan ezarritakoari jarraiki, lege horretan xedatutakoa Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzea, foru araubidea dela-eta, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko hitzarmen ekonomikoan xedatutakoari lotuko zaiola.

Batzorde Koordinatzailearen 2012ko maiatzaren 7ko bilkuran, 2011ko uztailaren 27ko Akordioa, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren eta Nafarroako Foru Komunitateko Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren artekoa, berretsi zuen, zeinaren bidez ezarri baitzen 2012-2014 eperako aurrekontu-egonkortasuneko helburua.

2013ko urtarrilaren 9an, Nafarroako Gobernuak 2012ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren 2013rako luzapena araupetuko duten exekuzio arauak eman zituen, 2013rako adostutako 131,06 milioi euroko (BPGaren % 0,7) defizit-helburuaren ildotik.

2013ko martxoaren 21ean, Zerga eta Finantza Politikarako Kontseiluak lantalde bat sortu zuen aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak aztertzeke, autonomia erkidegoetako bakoitzean. Lantaldearen lehenengo bilkura 2013ko apirilaren 22an egin zen.

2013ko apirilaren 26an, Ministro Kontseiluak onetsi zuen Europar Batasunari bidaltzea Espainiaren 2013-2016 urteetarako Egonkortasun Programaren gaurkotzea. Egonkortasun-programa horrek



aukera emanen du 2013an % 6,3ko defizitarekin amaitzeko Administrazio Publiko guztiak hartuta. 2014a, berriz, % 5,5eko defizitarekin amaituko da; 2015a, % 4,1ekoarekin; eta 2016a, azkenik, % 27koarekin.

Defizitaren 2013rako banaketa % 3,7koa izanen da administrazio zentralaren kasuan; % 1,4koa Gizarte Segurantzaren kasuan; eta % 1,2koa, azkenik, autonomia erkidegoen kasuan. Toki korporazioek aurrekontu-oreka lortu beharko dute.

1. Nafarroako Gobernuak zer defizit-helburu propio defendatuko ditu Estatuaren aurrean?

Nafarroako Gobernuak 2013rako defizit-helburu optimoa lortzea defendatzen du, gure gastuen aurrekontua finantzatzeko bidea emanen diguna eta berrabiatze ekonomikorako neurriak bultzatzeko aukera emanen diguna.

Nafarroako Foru Komunitatea autonomia erkidego bakarra da zuzenean bere zergak biltzen dituen; horrenbestez, diru-bilketa ez-seguraren kontabilitate nazionalaren doikuntza ez da gertatzen intentsitate berarekin Estatuko beste inongo autonomia erkidegotan, eta, aldi berean, Nafarroako zuzenean eta denbora errealean pairatzen du zergen jaitsiera, zeina gure automatikoki gure kontabilitatean jasotzen baita. Hori ez da beste inongo autonomia erkidegotan gertatzen.

2. Helburu hori lortzeak zer ondorio izanen luke oraingo aurrekontuaren kudeaketan?

Helburu hori lortzeak aukera emanen liguke ezarritako helburua betetzeko, ikusita nolako zalantza dagoen, gure kasuan, urte amaierara arte sortuko ditugun diru-sarrerei buruz.

3. Zer negoziazio-prozesu ezarri da?

Hitzarmen Ekonomikoko 67. artikuluan eta Batzorde Koordinatzailearen 1/2007 zenbakiko aktaren XV. eranskinean ezarritakoaren arabera, batzorde horri dagokio Nafarroako Foru Komunitaterako aurrekontu-egonkortasuneko helburua finkatzea. Hala eta guztiz ere, alde aurreko bitariko akordioak lortu ahalko dituzte Nafarroako Foru Komunitateak eta estatuko Administrazio Orokorak.

Hori dela eta, horixe da gure erkidegoa une honetan gauzatzen ari den negoziazio-prozesua. Hala eta guztiz ere, Nafarroa Zerga eta Finantza Politikarako Kontseilura eta haren barrenean sortzen diren lantaldeetara joaten da.

4. Zertan da negoziazio prozesu hori?

Negoziatio-prozesuaren egungo egoera da amaierako akordioa lortzeko elkarrizketa-fasean gaudela.

5. Nork osatzen du erakunde bakoitzaren ordezkariak negoziatioetan?

Estatuko Administrazio Orokorak Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Ekonomikorako Batzorde Koordinatzailean dauzkan ordezkariak honako organoetako titularrak dira:

Administrazio Publikoen Estatu Idazkaritza, estatuko Administrazio Orokorren ordezkariaren burua izanen dena; Aurrekontu eta Gastuen Estatu Idazkaritza; Ogasuneko Estatu Idazkaritza; Tributu Agentziako Zuzendaritza Nagusia; Aurrekontuetako Zuzendaritza Nagusia, eta Autonomietako eta Tokiko Koordinaziorako Idazkaritza Nagusia, zeina estatuko Administrazio Orokorren ordezkariaren idazkari lanak egiten dituen.

Nafarroako Foru Komunitateak Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Ekonomikorako Batzorde Koordinatzailean dauzkan ordezkariak honako organoetako titularrak dira: Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua, foru erkidegoko ordezkariaren burua izanen dena; Nafarroako Zerga Ogasuna erakunde autonomoko gerentzia; Politika Ekonomikoaren eta nazioartekoaren Zuzendaritza Nagusia; Aurrekonturako Zuzendaritza Nagusia; Araudi eta Zerga Garapenerako Zerbitzuko Zuzendaritza, eta Ekonomia Zerbitzuko Zuzendaritza, zeina foru erkidegoko ordezkariaren idazkaria izanen baita.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

## **Galdera, Tafallako Kirol Hiriko kanpoko igerilekuen finantzaketari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Tafallako Kirol Hiriko kanpoko igerilekuen finantzaketari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 6ko 46. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Tafallako Kirol Hiriko kanpoko igerilekuen finantzaketari buruz (8/13 PES 00061). Hauxe erantzun dio Gizarte Politiketako kontseilariak:

Nafarroako Gobernuak, maiatzaren 8an egindako bilkuran, erabaki bat hartu zuen, zeinak baimena ematen baitio Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari, diru-laguntza zuzena emateko Tafallako Udalari, Tafallako Kirol Hiriren bigarren faseko kirol instalazioak eraikitzeko lanetarako, bai eta beharrezkoa den gastu-konpromisoa hartzeko; zenbatekoa 150.000 eurokoa da.

Baimen hori Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen 2013ko maiatzaren 21eko Ebazpenaz eman da. Haren bidez, izan ere, aipatutako 150.000 euroko diru-laguntza ematen zaio Tafallako Udalari, eta diru-laguntza hori arautuko duten oinarriak onesten dira.

Diru-laguntzaren ordainketari dagokionez, horixe aipatzen baita galderan, aipatutako oinarri erregulatzaileek ezartzen dute ezen, behin obra egin da, beharrezkoa izanen dela haren justifikazioa aurkeztea, betiere 2013ko urriaren 30a baino lehen. Diru-laguntza ematen duen organoak behar den egiaztapena egin ondoren ordainduko da diru-laguntza.

Erantzun honi erantsi dizkiogu bai Gobernuaren maiatzaren 8ko Erabakia, bai Nafarroako Kirol eta Gazteriaren Institutuko zuzendari kudeatzailearen 2013ko maiatzaren 21eko Ebazpena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 27an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Iñigo Alli Martínez

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

## **Galdera, jakitekoa zer berri duen Nafarroako Gobernuak Europar Batasuneko aurrekontuan gazteen enplegua sustatzeko sorturiko diru-horniduraren kudeaketari buruz, zeinetik Espainiak zati handi bat jasoko baitu.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa zer berri duen Nafarroako Gobernuak Europar Batasuneko aurrekontuan gazteen enplegua sustatzeko sorturiko diru-horniduraren kudeaketari buruz, zeinetik Espainiak zati handi bat jasoko baitu, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko maiatzaren 13ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

### **ERANTZUNA**

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko zer berri duen Nafarroako Gobernuak Europar Batasuneko aurrekontuan gazteen enplegua sustatzeko sorturiko diru-horniduraren kudeaketari buruz, zeinetik Espainiak zati handi bat jasoko baitu (PES-0064). Horri erantzuteko honako informazioa eman dio Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariak:

2013ko otsailaren 28an, Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendio bat onetsi zen, gazteen-tzako berme bat ezartzeari buruz. Berme horren helburua da gazteek, langabezia geratzen direnean edo hezkuntza formala amaitzen dutenean, lau hilabeteko epean, honakoak jaso dezatela: enplegu-eskaintza egoki bat, etengabeko hezkuntza, ikastun gisako edo praktika-aldietako prestakuntza.

Berme horrekin, hiru helburu lortu nahi dira:

- 20 eta 64 urte bitarteko pertsonen % 75ek enplegu bat edukitzea.
- Ikasketak garaia baino lehen uzten dituzten pertsonak guztien % 10 baino gutxiago izatea.
- 20 milioi pertsona pobreziatik eta gizarte bazterketatik erreskatatzea.

Berme hori 2014tik aurrera aplikatuko da. Europar Batasunaren funtsekin finantzatuko da, bereziki Europako Gizarte Funtzarekin eta bestelako kohesio-tresna batzuekin, eta Europar Batzordeak prestatuturiko 2014-2020 urteetarako Gazteen Enpleguari buruzko ekimen berriaren bidez indartuko da. Ekimen hori irekita dago % 25etik gorako gazteen langabezia tasa duten eskualde guztientzat.

Programa horretarako babes 6.000 milioi eurokoa izanen da, datozen zazpi urteetarako. Zenbateko horretatik, aurreikusten da Espainiak honakoak jasotzea:

– 918 milioi euro, Gazteen Enplegurako berriazko kontusailetik.

– 932 milioi euro, Europako Gizarte Funtsetik, xede berarekin.

Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioko Enpleguko Estatu Idazkaritzak jakitera eman du programaren definizioa eta funts ekonomikoen kudeaketa mugatu gabe eta zehaztu gabe daudela. Jakitera ematen du litekeena dela autonomia erkidegoek kasuko neurriak hartzen parte hartzea. Hala bada, xede horretarako kreditua jasoko dute, Konferentzia Sektorialaren bitartez. Nolanahi ere, programaren hasiera eta, horrenbestez, finantziarioaren kontzesioa, ez dira 2014ko urtarrilaren hasiera baino lehen gauzatuko.

Hori dela eta, programa horri buruz gaur egun Nafarroako Gobernuak daukan informazioa behin-behinekoa da eta alda daiteke, zeren eta Europak programako funtsezko alderdi batzuk ez baititu zehaztu; esate baterako, onuradunak, helburua, funtsak, hartu beharreko neurriak eta abar.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2013ko maiatzaren 30ean

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu